

JESÚS GURUTZILLTZETUARI



Aita betikuak zu
 Lendaatuturik
 Ta asmagitegiak
 Adierazirik
 Eguberri bezperan
 Etzala berorik
 Belenen chit bearsu
 Jayo ziñalarik
 Ama guzizko santa
 Mariyaren gandik
 Ordurako etsai bat
 Bazenubelarik,
 Ta salbatu baziñan
 Ejiptora joanik
 Herodes-ek etzuben
 Izan atsegiñik
 Beste aur doatsubak
 Ill zitubelarik.
 Ogei ta amar urtean
 Chukun biziturik
 Guraso chit doneai
 Zintzo jarraiturik
 Beste iru urtetan
 Jaunak ala nairik
 Egiya predikatzen
 Zu ibilliturik
 Mirari aundiyanak
 Aldiyaz egiñik

Jaungoikua ziñala
 Beti bedoiturik
 Illunpean zeudenak
 Argitan jarririk
 Eragozpen guziyak
 Ziñez garaiturik
 Elkarte ondukua
 Oso mudaturik
 Zeregana begira
 Ardiyak jarririk
 Erramu egunean
 Omenez beterik
 Jerusalemen sartu
 Ziñan goyendurik.
 Etzan an agintari
 Etzan erregerik
 Etzan aberatsikan
 Etzan bearsurik
 Etzan uri guziyan
 Etzan bat bakarrik
 Zure garait-ondoa
 Maite etzubenik.
 Bañan ostegun santuz
 Zentzuba galdurik
 Judu fariseuak
 Elkarganaturik
 Zure kontra alchatu
 Ziran arroturik

Judas salkindariya
 Diruz erosirik
 Apostolo etoyak
 Lotsik gabetanik
 Laztan palso batekin
 Nor ziñan esanik
 Borrero gaizto ayek
 Zuzaz jabeturik
 Bildoch bat ziñadela
 Bazekitelarik
 Zuretzako etzuten
 Errukimenturik.
 Naigabe ta oñaze
 Asko igarorik
 Onkeriol guziya
 Umill sufriturik
 Erregeen Errege
 Zu zeradelarik
 Gure pekatu denak
 Zure gañ arturik
 Gurutzean arkitzen
 Zera zu zinzilik
 Bi lapurren erdiyan
 Larrugorriturik
 Arantzazko koroï bat
 Buruban jantzirik
 Eskubak eta oñak
 Entengaz josirik
 Lonjinos-ek sayetsa

Lantzaz irikirik
 Gorputz sagradu dena
 Dena zauriturik
 Zure Aitaren naya
 Egikariturik
 Buruba makurtuta
 Begiyak ichirik.
 Or zaude zu munduba
 Erredimiturik
 Era triste orretan
 Nik zu ikusirik
 Ta zeñengatik zauden
 Pensatzen jarririk
 Ezpaldin banu bada
 Iñoiz ill bearrik
 Ta baneki ezdala
 Beste bizitzarik
 Ez dala infernu ta
 Satikuztegririk
 Ez balitzake ere
 Gañera Zerurik
 Beti zure bildurra
 Izango nuke nik
 Nadukezubelako
 Beti ertziturik.
 (Bañan zure fedean
 Joan naidet emendik
 Dauzkatzubelako zuk
 Besoak zabalik).

RAMOS AZKARATE-KUAK.

